



2011KO EKAINAREN 8KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamaikako ekainaren zortzian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, soil soilik aurreko akta onartzeko ez-ohiko batzarraldia egin asmoz. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio eta Iñaki Saldaña Herrero.

Xanet Barreras Jauregi eta Javier Moreno González de Lara zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTEN ONARPENA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren Osoko Bilkuraren onespenera jartzen dira 2011ko maiatzaren 5ean egindako ohiko eta 2011ko maiatzaren 12an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak eta bost direnean direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

